

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Hasieran kaleetatik kartelak emango ditugu tarbernetatik edo dendetatik, hor adieraziko ditugu gure sare sozialak, gmail-a, QR bat eta telefono zenbakia, hortik gure zerbitzua zabalduko dugu (Twitter, Instagram, Facebook...) kontu bat irekiko dugu enpresa erakusten eta azaltzen duena. Uste dugu sare sozialetatik enpresa erakustea bide on bat izan daitekeela, edozein pertsona erabiltzen dituelako eta beste enpresek ikusi egingo gaituztelako. Gainera, sare sozialetatik idatz diezagukete eta hortik ere komunikatuko gara gure bezeroekin. Jada gure enpresa ezagutzen dutenean eta interes handia badute planteatzen zaizkien gauzekin edozein telefonoen deien bidez komunikatuko gara eta gure ideia beste enpreseei aurkezterako orduan, guzitok gure lokalean elkartuko gara.

Beste alde batetik, webgune bat izango dugu empresaren idei batzuk erakusten eta azaltzen, hortik gure bezeroek ikus ditzakete gure enpresak eskaintzen dituen idei motak. Diru gehiago lortzen dugunean, telebista kolaborazioak egin ditzakegu, hobeto zabaltzeko eta bezero gehiago izateko edozein adineko pertsonak telebista ikusten dutelako. Enpresa hasten denean eta Espainiatik zehar zabaltzen dugunean, enpresa feria batzuetan parte hartuko dugu gure enpresa zabaltzeko, adibidez, 4YFN (Barcelona), Transfiere (Malaga) eta EPA (Madrid).